| **Euskara ikasteko dirulaguntza deialdia, 2026koa** | ***Convocatoria de ayudas para el aprendizaje de euskera, año 2026*** |
| --- | --- |
| Baztango Udalak euskararen gizarte ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko konpromiso irmoa du. Izan ere, euskara Baztango hizkuntza izanik ere hainbat gizarte esparrutan haren erabilera apala da. | *El Ayuntamiento de Baztan está firmemente comprometido con el aumento del conocimiento y la promoción del uso social del euskera, ya que aun siendo el euskera la lengua de Baztan, su utilización en muchos ámbitos sociales es escasa.* |
| Horregatik Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak bere 39. artikuluan ezarri zuenez, Baztango Udalak euskararen ezagutza handitzea eta haren erabilera ziurtatzea nahiz gizartearen arlo guztietan orokortzea xede duela, jarduerak abiaraziko ditu. | *Es por ello que la Ordenanza reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan, en su artículo 39, establece que el Ayuntamiento de Baztan tomará las medidas pertinentes con el objetivo de aumentar el conocimiento de la lengua vasca así como asegurar su uso y extenderlo a todos los ámbitos sociales.* |
| Gainera Baztango Euskararen Plan Estrategikoan (2024-2027) hirugarren ardatzean “Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu” aipatzen da eta helburua betetzeko ekintza zehatzetako bat ondokoa da: “Euskara ikasteko dirulaguntzarekin jarraitzea”. | *Además, en el tercer eje del Plan Estratégico del Euskera de Baztan (2024-2027) se menciona "Reforzar las oportunidades de enseñanza y aprendizaje del euskera” y una de las acciones concretas para cumplir el objetivo es: "Continuar con la subvención para el aprendizaje del euskera".* |
| Sustapen jarduera horien artean Baztanen euskara ikasten duten herritarrendako dirulaguntzak daude eta horiek arautzeko honako baldintza eta irizpideak onartu ditu Baztango Udalak 2026ko maiatzaren 21ean Tokiko Gobernu Batzordean. | *Entre esas medidas de fomento están las ayudas económicas a las y los vecinos que aprenden euskera. El Ayuntamiento de Baztan, en sesión celebrada por la Junta de Gobierno Local el 21/05/2026, ha aprobado las siguientes bases que regulan esta convocatoria.* |
| OINARRIAK | BASES |
| **1- Xedea** | ***1.–Objetivo.*** |
| Deialdi honek xede hau du: euskara ikasteko ikastarorik egin duten baztandarrei horrek dakarkien matrikula gastuetarako dirulaguntza emateko modua arautzea. | *El objetivo de la presente convocatoria es regular la concesión de ayudas económicas a las y los vecinos de Baztan que realizan algún curso para el aprendizaje de euskera.* |

| 2- Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak | *2.–Contenido y concepto de las ayudas.* |
|---|---|
| 2.1- Diruz lagunduko dira 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikula gastuak. Euskara ikasteko edo euskaraz alfabetatzeko ikastaroak estentsiboak edo trinkoak izan daitezke, bai eta barnetegiak ere. Autoikaskuntzaren kasuan Udalak eskabide bakoitzaren bideragarritasuna aztertu eta aurrekontuaren arabera erabakiko du. | *2.1. Se concederán ayudas para la matrícula en cursos realizados entre el 1 de septiembre de 2025 y el 31 de agosto de 2026. Los cursos de aprendizaje de euskera o alfabetización en esta lengua pueden ser extensivos o intensivos, incluidos los realizados en régimen de internado. En los casos de cursos de autoaprendizaje o clases particulares, el Ayuntamiento valorará la viabilidad de cada solicitud y decidirá de acuerdo al presupuesto.* |
| 2.2- Eskatzaileak maila bereko ikastaro bat baino gehiago egin arren, bakarrarengatik jasotzen ahalko du dirulaguntza deialdi bakoitzean. | *2.2. No se subvencionará más de un curso del mismo nivel. Es decir, no se concederá ayuda económica, ni en la misma convocatoria ni en la siguiente, por la realización de un curso del mismo nivel que otro que ya haya sido objeto de subvención.* |
| 2.3- Garraioa eta materiala ez dira diruz lagunduko. Baztango euskaltegian bere mailako talderik sortuko ez balitz bertze euskaltegi batera joateagatik sortutako gastuak ez dira lagungarri izanen. | *2.3. Dentro de los conceptos subvencionables no se incluyen ni el transporte ni el material. Si en el euskaltegi de Baztan no existiera grupo del nivel deseado, los gastos de desplazamiento a otro euskaltegi no serán objeto de ayuda económica.* |
| **3- Onuradunak** | ***3.–Beneficiarios.*** |
| Dirulaguntza jaso ahal izanen dute ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek: | *Podrán recibir ayuda económica por aprender euskera las personas que cumplan las siguientes condiciones:* |
| a. 16 urte baino gehiago izatea. | *a) Ser mayor de 16 años.* |
| b. Baztanen erroldaturik egotea urtebeteko antzinatasunez eta egoera horretan irautea diruz lagunduko den aktibitateak dirauen denbora osoan. | *b) Estar empadronada/o en Baztan con una antigüedad de un año y permanecer en esa condición mientras dure la actividad objeto de la subvención.* |
| c. Zergen ordainketa nahiz Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean edukitzea eta Baztango Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea. | *c) Estar al corriente de los pagos tributarios y/o de las obligaciones con la Seguridad Social y no tener ninguna deuda pendiente con el Ayuntamiento de Baztan.* |
| d. 2025-2026 ikasturtean (2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra) euskaltegi batean euskara ikastaroren batean matrikulaturik | *d) Estar matriculada/o en algún curso de algún euskaltegi el curso 2025-2026 (del 1 de septiembre de 2025 a 31 de agosto de 2026) y haber abonado la* |

| | |
|---|---|
| egotea eta haren matrikula ordaindurik izatea.<br><br>e. Euskaltegiak ikastaroaren gutxienez % 80ko asistentzia / aprobetxamendua egiaztaturik izatea. Autoikaskuntza programa batean ikasten duten ikasleek ere horren aprobetxamendu-egiaztagiria aurkeztu behar dute.<br><br>f. Nafarroako Gobernuak euskara ikasteko dirulaguntza deialdia aterako balu hura ere eskatzea beharrezkoa izanen da, salbuespenak salbuespen[1]. | *matrícula.*<br><br>*e) Que el euskaltegi acredite una asistencia/aprovechamiento de, al menos, un 80% del curso. Los alumnos/as que estudian en un programa de autoaprendizaje también han de presentar esa certificación.*<br><br>*f) En caso de que el Gobierno de Navarra aprobara la convocatoria de subvenciones para el aprendizaje del euskera, será necesario solicitarla, salvo excepciones[2].* |
| **4- Dirulaguntzaren zenbatekoa** | ***4.–Cantidad de las ayudas.*** |
| 4.1- Dirulaguntza hauek 2026 urteko aurrekontuen dirulaguntzen diru-sailaren kargura, euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia izenekora joanen dira. Horretarako 8.000 €ko aurrekontua dago. | *4.1. Estas ayudas irán a cargo de la partida de subvenciones, convocatoria de ayudas para el aprendizaje de euskera, de los presupuestos para el año 2026 La partida cuenta con una dotación de 8.000 euros.* |
| 4.2- Dirulaguntza hau gehienez ere 450 eurokoa izanen da. Laguntzaren zenbatekoa eskatzailearen errenta aitorpenaren araberakoa izanen da, eta aurkezten diren eskabideen arabera eginen da aurrekontuaren zatiketa. | *4.2. El límite de la subvención será de 450 euros por persona. El importe de la ayuda económica dependerá de la declaración de la renta del/la solicitante, repartiendo el presupuesto entre las solicitudes admitidas.* |
| 4.3- Aurrekontuetan aurreikusi den diru-kopurua, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere. | *4.3. La dotación prevista en los presupuestos se repartirá entre las solicitudes que se entreguen en plazo y forma, siempre que cumplan los requisitos de la presente convocatoria.* |
| 4.4- Dena dela, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 450€ baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko. | *4.4. De todas formas, los beneficiarios de las subvenciones no podrán recibir más de 450 euros en cada convocatoria.* |
| **5- Deialdiaren publizitatea** | ***5.–Publicidad de la convocatoria.*** |
| Deialdi hau honako hauetan iragarriko da: *Nafarroako Aldizkari Ofiziale*an, Baztango Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean. | *La presente convocatoria se anunciará en el Boletín Oficial de Navarra, en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios de la casa consistorial.* |

[1] Estatu Espainiarreko dokumentazio ofizialarekin arazoak dituztenak.
[2] Quienes tengan algún problema con la documentación oficial del Estado Español.

| | |
|---|---|
| **6- Eskabideak aurkezteko epea**<br><br>Eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 1etik 30era (14:00ak arte) izanen da. Epea luzaezina izanen da. | ***6.–Plazo de presentación de solicitudes.***<br><br>*El plazo para la presentación de solicitudes será del 1 al 30 de septiembre (hasta las 14:00 horas) de 2026.* |
| **7- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**<br><br>Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:<br><br>a. Eskaera orria behar bezala beteta (erantsita dago eredua).<br>b. Nortasun agiriaren fotokopia.<br>c. Ikastaroa antolatzen duen erakundearen ziurtagiria, honako ezaugarriak zehazten dituena: ikastaroaren iraupena, maila, matrikularen kostua eta dirulaguntza eskatzen duen ikasleak izan duen asistentzia portzentajea.<br>d. Matrikularen ordainagiria(k).<br>e. Langabeek Gizarte Asegurantzak emandako lan-bizitza izeneko agiria aurkeztu beharko dute, eguneratua. Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko.<br>f. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitorpenaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo, aitorpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitorpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekin frogatu.<br>g. Eskatutako dirulaguntzen aitorpena, helburu horretarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden adierazi beharko da. Azkenengo kasu horretan kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da. | ***7.–Documentación a presentar.***<br><br>*La/os solicitantes tendrán que presentar la siguiente documentación en el registro del Ayuntamiento de Baztan:*<br><br>*a) Instancia de solicitud de la subvención (se adjunta) debidamente cumplimentada.*<br>*b) Fotocopia del DNI.*<br>*c) Certificado de la entidad organizadora del curso que detalle las características de éste: duración, nivel, coste de la matrícula, así como el porcentaje de asistencia a clase del alumno o alumna solicitante de la ayuda.*<br>*d) Recibo de pago o certificado de la entidad organizadora que certifique el abono del 100% del coste del curso.*<br>*e) Las personas en paro habrán de presentar el documento de vida laboral expedido por la Seguridad Social. La fotocopia de la tarjeta de paro* ***no*** *se considerará como certificado de desempleo.*<br>*f) Se acreditarán mediante aportación de fotocopia de la última declaración o declaraciones del Impuesto de la Renta de la Personas Físicas, o bien, certificado de la Hacienda Foral de no haberse efectuado dicha declaración, en el supuesto de que no estuviesen obligados a presentarla. En su defecto, la/el solicitante presentará una Declaración Jurada de los ingresos familiares brutos obtenidos, justificándolo documentalmente.*<br>*g) Declaración de toda ayuda solicitada o recibida de cualquier administración pública o entidad privada en relación con el objeto de la presente convocatoria. Habrá de explicitarse si* |

h. Zinpeko aitorpena: zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.

g. eta h. puntuetan eskatzen dena aurkezteko eredu bat atxikita doa bukaeran.

Deialdian parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa Baztango Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko da (Baztango Udala. Erregistroa. Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

**8- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea**

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun natural emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

**9- Ebazpena**

Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Baztango Udaleko alkate-udalburuak edo berak eskuordetzean eman dion organoak hartuko du. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

**10- Dirulaguntzaren ordainketa**

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren; banku transferentzia bidez eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

*esas ayudas están por resolver o ya resueltas. En el caso de estar ya resueltas, se adjuntará una copia de la resolución de concesión.*

*h) Declaración jurada de estar al corriente con las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.*

*Para presentar lo solicitado en los puntos g. y h. se facilita un modelo al final del documento.*

*Las instancias para poder participar en la convocatoria deberán presentarse en el Registro del Ayuntamiento de Baztan (Plaza de los Fueros, s/n, 31700 Elizondo) , o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

***8.Subsanación de errores de las solicitudes.***

*Si se viera que en la documentación presentada por los solicitantes existe algún error o falta algún documento, se les concederá un plazo de diez días naturales para corregir los errores o completar la documentación. Si pasado ese plazo no se ha subsanado el error o completado la documentación, se entenderá que el/la solicitante renuncia a la solicitud.*

***9.–Resolución.***

*El acuerdo de adjudicación de la ayudas de la presente convocatoria lo tomará la/el alcalde/sa-presidenta/e del Ayuntamiento de Baztan o el órgano en el que ésta delegue. Ese acuerdo se les trasladará a todos los interesados.*

***10.–Abono de las ayudas.***

*Las ayudas se abonarán en pago único tras haberse tomado el acuerdo de concesión, mediante transferencia bancaria al número de cuenta facilitado por los solicitantes.*

| | |
|---|---|
| **11- Bateragarritasuna**<br><br>Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze edozein erakunde publikok zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada, hau da, diru laguntzaren zenbatekoak ezin izanen du jardueraren guztizko kostua gainditu. | ***11.–Compatibilidad.***<br><br>*Estas ayudas son compatibles con cualquier otra ayuda de administración pública o entidad privada que se hayan dado con el mismo fin, siempre y cuando no exista sobrefinanciación, es decir, sin que el importe total subvencionado en concurrencia con otras entidades pueda superar el coste total de la actividad.* |
| **12- Dirulaguntzen itzulketa**<br><br>Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondoan azaltzen diren kasuetako baten bat gertatzen bada:<br><br>a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.<br><br>b. Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.<br><br>c. Euskara ikasteko dirulaguntza toki batean baino gehiagotan eskatzearen ondorioz, onuradunak matrikulan gastatutakoa baino gehiago jasotzen badu, Baztango Udalari diru-laguntza itzuli beharko dio, osorik edo parte bat, matrikularen guztizko zenbatekoraino.<br><br>d. Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea. | ***12.–Devolución de las ayudas.***<br><br>*La/os beneficiarias/os deberán devolver toda o parcialmente la ayuda recibida en el caso de concurrir alguna de estas situaciones:*<br><br>*a) Recibir la ayuda sin cumplir los requisitos requeridos, por alguna razón que se pueda atribuir al beneficiario.*<br><br>*b) No presentar la documentación requerida en el plazo estipulado.*<br><br>*c) Que la actividad que es objeto de la convocatoria de ayuda económica, haya recibido otra subvención y exista sobrefinanciación. En el caso de que el importe total de la suma de las diferentes subvenciones obtenidas sea superior al importe de la matrícula, la persona solicitante deberá devolver al Ayuntamiento de Baztan la cantidad correspondiente al exceso.*<br><br>*d) No aceptar u obstaculizar las verificaciones de obligada aceptación.* |
| **13- Arau-hauste eta zehapenak**<br><br>Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du. | ***13.–Infracciones y sanciones.***<br><br>*En lo que respecta a las infracciones y sanciones, regirá lo determinado en Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.* |
| **14- Datuen babesa**<br><br>Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. | ***14.–Protección de datos.***<br><br>*Los datos de los solicitantes se tratarán según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.* |

| | |
|---|---|
| **15- Aplikatutako araudia**<br><br>Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.<br><br>**16- Errekurtsoak**<br><br>Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da, aukeran:<br><br>a. Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.<br><br>b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.<br><br>c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori. | ***15.–Normativa de aplicación.***<br><br>*Para todo lo no previsto en esta convocatoria se aplicarán la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local, y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*<br><br>***16.–Recursos.***<br><br>*Contra esta convocatoria, así como contra sus bases o contra las resoluciones administrativas que se tomen para el cumplimiento de éstas, podrá interponerse optativamente cualquiera de estos recursos:*<br><br>*a) Recurso de reposición, ante el mismo órgano municipal autor del acto, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente a la notificación del acto recurrido o su publicación.*<br><br>*b) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, dentro del mes siguiente a la fecha de notificación.*<br><br>*c) Recurso contencioso-administrativo, ante la Sala del mismo orden del Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente a la publicación o notificación del acto recurrido.* |

Euskara ikasteko dirulaguntzak

**Eskabidea/** ***instancia de solicitud***

**Eskatzailearen datuak:**

| |
|---|
| **Izen-abizenak**/*Nombre y apellidos*: |
| **NAN**/*DNI:* |
| **Helbidea**/*Dirección:* |
| **Posta kodea eta herria**/*Código postal y localidad*: |
| **Telefonoa**/*Teléfono:* |
| **Helbide elektronikoa**/ *E-mail:* |
| **Kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)**/ *Número de cuenta corriente (Código IBAN + 20 dígitos):* |
| **2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko ikastaroek ekarritako matrikula gastua, guztira/** *Gasto total realizado en el curso 2025-2026 en matrícula de cursos para aprendizaje de euskera:* ____________________ € |

**(Data eta sinadura /** ***fecha y firma*****)**

# EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA

**AYUDAS PARA EL APRENDIZAJE DE EUSKERA: DECLARACIÓN JURADA**

Eskatzaileak hau aitortzen du/ *El/la firmante, cuyos datos se indican, DECLARA:*

☐ Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan / *No hallarse inmersa en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.*

☐ Egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aitzinean dituenak, baita Baztango Udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere / *Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Baztan.*

☐ Helburua edozein izanik, dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei / *Que ha solicitado subvención a las siguientes entidades:*

| **ERAKUNDEA**<br>*Entidad* | **ZENBATEKOA**<br>*Cantidad* | **EGOERA**<br>(Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta / *Sin resolver, resuelta pero sin cobrar o cobrada)* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

☐ Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana / *Que aparte de esta solicitud de subvención no ha solicitado ni recibido ninguna otra subvención para el mismo fin, concedida por otra entidad pública ni privada.*

☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Baztango Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain / *Que en el caso de solicite ayuda para el mismo fin a otra entidad pública o privada, se compromete a comunicárselo al Ayuntamiento de Baztan.*

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du / *Y, para que así conste, firma la presente.*

(Data eta sinadura / *fecha y firma*)